



## "Gabonetan Bizi Mungia" ekimenak magiaz eta publiko guztientzako programazioz beteko du udalerrria

- Olentzeroren harrera abenduaren 24an izango da, eta Landetxo baserritik aterako da 16:30ean, udaletxera 18:00etan iristeko.
- Gabonetako Azoka Matxin plazara abenduaren 15etik 24ra itzuliko da artisautza postuekin. Gabonetako Haur Parkea udal pilotalekuan jarriko da abenduaren 27an eta 28an.
- Tailerrak, kaleko ikuskizunak, kontzertuak, Gabonetako kantuen topaketa, zinema, jokoak, herri kirolak, lehiaketak, ihes gela bat, talo postuak... izango dira Mungiako Udalak prestatu duen programazioaren osagarri.

**Mungia, 2023ko abenduaren 1a.** "Gabonetan Bizi Mungia" lelopean, Mungia argiz, magiaz eta publiko guztientzako programazio biziz beteko da. Udalak hainbat jarduera aurreikusi ditu, hala nola tailerrak, kaleko ikuskizunak, kontzertuak, zinema, jokoak, herri kirolak, lehiaketak, ihes gela bat eta talo postuak, baita tradizionalenak ere, hala nola Olentzerori eta Mari Domingiri harrera egitea, Gabonetako azoka, Gabonetako haur parkea edo Gabonetako kantuen topaketa. Abendu osoan zehar eta Errege bezpera arte adin eta gustu guztientzako aukera paregabea.

Gabonetako argiak gaur arratsaldean piztuko dira, aurreikusitako programazio osoari hasiera emango diona eta Mungiako txoko guztiak argiz beteko dituena.

Urtero bezala, haur mungiarrek gehien espero duten unea abenduaren 24an Olentzerori ongietorria ematea da. Ikazkin maitearekin eta Mari Domingirekin egongo diren lagunak 16:30ean irtingo dira Landetxo baserritik eta 18:00etan iritsiko dira udaletxera, Mungiako kaleak zeharkatu eta ilusioz bete ondoren.

Mungian Euskeraz Alkartea, Basapizti Taldea, Tallu Mendizale Taldea, Amilotx Dantza Taldea, Gure Ametsa Txistulari Taldea, J.M. Arregi Abesbatza, Txispeleta Eskaut Taldea, Udal Musika eta Dantza Eskola, Bentades Ikastetxea, Larramendi Ikastola, Laukarizko Eskola, Legarda Ikastetxea, Guraso Elkarreak eta Mungiako Udala arduratuko dira Gabon egunaren aurreko orduetan ekitaldi hau eszenaratzeaz.

Aurretik, abenduaren 16, 17, 22 eta 23an, 17:00etatik 20:00etara, Mari Domingi Olentzerori zuzendutako gutunak jasoko ditu Izenduba Basoan. Gainera, abenduaren 22an, 18:00etan, Gabonetako postontzia jarriko da Matxin plazan Olentzerori eta Mari Domingiri zuzendutako gutunak uzteko, eta hurrek makillaje tailer batean parte hartu ahal izango dute.

### **Azoka eta Gabonetako haur-parkea**

Abenduaren 15etik 24ra Gabonetako Azoka itzuliko da artisautza postu ezberdinekin Matxin plazara. Abenduaren 15, 16, 17, 22 eta 23an ordutegia 11:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:00etara izango da. Abenduaren 18, 19, 20 eta 21ean ordutegia arratsaldez izango da, 17:30etik 20:00etara. Abenduaren 24an lanpostuak goizez bakarrik irekiko dira 11:00etatik 14:00etara.

Gabonetako Haur Parkearen kasuan, abenduaren 27an eta 28an zabalik egongo da udal pilotalekuan, 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Sarrera doakoa da.



### **Tailerrak, zinema, kale antzerkia, kontzertuak... Mungian**

Mungiako Udalak beste hainbat jarduera prestatu ditu urteko azken hilabeterako. Abenduaren 3an hasiko dira, Euskara Saria 2023 eta Lauaxeta Olerki Lehiaketa sariak banatzeko ekitaldiarekin, 19:00etan, Olalde Aretoan, Euskararen Nazioarteko Egunaren barruan. Abenduaren 15ean, 18:30ean, Gaztegunean zeramikazko farolatxoan tailerra egingo da. Jarduera horrek edukiera mugatua izango du, eta alde zaureratik izena eman beharko da. Bertan, 19:00etan talo postu bat jarriko da eta "Alnahi Band" ek kontzertua eskainiko du Foruen plazan.

Abenduaren 16an Gaztegunean "Jurassic World" filma eskainiko du 18:30ean eta 19:00etan "DJ Kaktus" Foruen plazan arituko da.

Abenduaren 19an, 20: 00etan, Olalde Aretoan "Matria" (2023ko Malagako Zinemaldia) filma eskainiko du zinema jaialdian saritutako filmaren zikloaren barruan. Jarduera horri gehitu behar zaio Olalde Aretoan abendu osoan zehar antolatzen duen Gabonetako zine bereziaren programazioa.

Abenduaren 21ean 18:00etan Foruen plazan Zirkoteke kale ikuskizuna antolatu da. Abenduaren 23an 12:00etan Foruen plazan trebetasun jolasak izango dira, 18:30ean Gaztegunean Gabonetako gozoki tailerra eta 19:00etan Foruen plazan talo postu bat eta "Lowe Band" taldearen kontzertua. Abenduaren 26an "GO! AZEN 10.0" ek bi kontzertu eskainiko ditu Olalde Aretoan, 17:00etan eta 19:00etan.

Gaztegunean 12 urtetik gorakoentzako moda diseinuko ikastaroak izango dira. Abenduaren 26tik 29ra izango da, 11:00etatik 13:00etara.

Udal kiroldegia ere bat egiten du Gabonekin eta Uraren Jaia ospatuko du uretako puzgarriak eta jolasak eginez igerileku sakonean eta txikian. Abenduaren 27an izango da 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Abenduaren 28an, 18:30ean, diskofesta izango da Andra Marin, Pako & Iosu disko-jartzaileen eskutik. Abenduaren 29 eta 30ean Euskaraz Barra-barraren scape-room bat egingo da 10:00etatik 21:00etara Euskal Pizkundea etorbidean. Urtea amaitzeko, abenduaren 31n Dunbots Fanfarria Mungiako kaleetan zehar ibiliko da 12:30etatik aurrera.

### **Errosko solidarioa jaia**

Abenduaren 5ean, Errege bezperan, Gabonetako erroskoia banaketa egingo da txokolate beroarekin. Ekitaldi honetan haurrentzako ikuskizun bat egingo da Gaur Jaia taldearen eskutik eta bildutako diru guztia STOP FA elkartearentzat izango da, Mungiako haur batek pairatzen duen Friedreichko Ataxia izeneko gaixotasun arraro bat ikertzeko proiektua finantzatzeko laguntzeko.

### **Beste ekintza batzuk**

*Mungiako Merkatari eta Ostalarien Elkarteak* ere jarduerak antolatu ditu abendu osoan zehar. Abenduaren 2an talo tailerra izango da Matxin plazan 11:30etik 14:30era eta herri kirolak 17:00etatik 20: 00etara. Abenduaren 9an, 11:30etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Andra Marin, tirolina, soka librea, ohe elastikoa, oreka jolasak, eskalada eta jarduera gehiagorekin zintzilikatutako emozioen laborategia instalatuko du. Abenduaren 16an ere Andra



**MUNGIA**  
**UDALA**

Marin Montessori parkea eta lore-tailerra izango dira 11:30etatik 14:30etara eta ipuin kontaketa eta eskulanak 17:00etatik 20:00etara.

Bestalde, Gizaberri Elkartasun Taldeak Gabonetako kantuen topaketa antolatu du abenduaren 16an Andra Marin eta San Pedron, 20:00etan. Egun horretan bertan, Mungirocken 8. urteurrena ere izango da, Leihotikan talde nafarraren eta Blister Sun mungiarren kontzertuarekin. Azken Zarata Rock Elkarateak antolatu du eta 20:30ean izango da. Mungian Euskeraz Alkarateak Mihiluze Lehiaketa ospatuko du, 11 eta 12 urte bitarteko gazteentzat eta 16 urtetik gorakoentzat. 16:30ean eta 18:00etan Olalde Aretoan.

Bitxikiak Bildumazaleen Elkarateak Gabonetako XIX. Arrastoa ospatuko du abenduaren 17an Legardako aterpean 10:00etatik aurrera. Gainera, bere lokalean Jaiotza eta Play Mobilen erakusketa bat egongo da, abenduaren 5etik urtarrilaren 10era.